

Josu Tellabide Azkolain

EZAGUTZEN AL DUZU ALTZA?

Artikulu hauek Irutxulo aldizkariaren "Ezagutzen al duzu Donostia?" sailan ateratakoak dira, 1994-1997 urteen artean.

Denetara hogei artikulu dira eta argitaratu ziren bezala aurkituko dituzu hemen, hiru izan ezik, Pelegriñene, Berra eta Londres, aldaketa txiki batzuk izan dituztenak.

Argazkiak Josu Tellabiderenak dira, ondoko hauek salbu: Uba eta Binagrene Ximon-enak; Mirabarkera (xehetasuna) Roxali Fernandez-ena; Ubako Amabirjina Angel Calvo-rena.

GAZTELUENE

Altzako herri zaharrea, Lau-Aizeta etxea, Pelegriñene eta Amueder baserriak pasatu ondoren, Molinaoko bide zaharra jarraitzen dugu eta Gazteluene baserriko ataritik pasatzen gara. Zer oroitarazten digu



JOSU TELLABIDE

Gazteluene 1990 Altza

Josu Tellabide Azkolain



JOSU TELLABIDE

Gazteluene berriya- Altza 1994

baserri txiki polit honek? Bada, gure Txirrita maitatuaren etxea dela. Bertan bizi izan zen gure bertsolari haundia, Oreretako Txirrita baserritik gaztetan hona etorri zenetik. Dena dela Hernaniko Latze-Zar baserrian jaioa zen; haurra zela Txirritara ekarri zuten eta hortik hartu zuen goitizena Jose Manuel Lujanbio haundiak, Txirrita 1.936. urteko ekainaren 3an hil zen Gaztelueneen 75 urterekin.

Urte batzuk lehenago honela kantatu zuen Hernaniko Ereñozun:

*"Gazte gazterik asi nintzen da
oraindño bitartian,
zenbait umore eder jarri det
Kantabriako partian,
pixka batian ez naiz aztuko
sartuagatik lurpian,
nere aipamenak izango dira
beste larogei urtian"*

PELEGRINIENE


Lau Haizeta etxetik hurbil San Marko eta Txoritokietako bidea hartu eta, ares-tian eta gure eskuinera bi bizitzako baserri xarmant bat agertzen zaigu, galtzara ondoran: Pelegriniene.

Gaur etxe hau baserri arrunt bat da; aurrekaldetik harri landuak, zura eta adreiluz osatua. Bide aldeko horman deztetra edo «Uliya-arrizko» gurutze haundi bat dauka horma berari atxekia. Izenak adierazten duenez ospe haundiko ostatua izan zela dirudi, Santio-ostatua hain zuzen ere.



JOSU TELLABIDE

Pelegriniene- Altza 2000



JOSU TELLABIDE

Pelegriniene- Altza 1994

Nondik eta zer bidai egiten ote zuten "pelegrina" haiek? Ez dakigu ziur, baina badirudi Lezo, Orereta eta Txipres aldetik etortzen zirela; edo Herrerako portutik igotzen zirela Pasaia txalupaz zeharkatu ondoren. Pelegrinienen lo egin eta gero Donostiako bidea hartzen zuten Egian barrena edo Urumea ibai ertzera jeisten ziren (Sarrueta auzora). Hemendik ibaietik edo oinez Astigarraga joaten ziren, han, Santioko ermita bisitatu ondoren, Galiziako Santio aldera beren bidaia jarraitzeko.

Santio-bideko erromesen ostatua zela dio tradizioak, baina, hau horrela izan arren, badirudi etxe-izena Pelegrin famili izenatik datorrela. Jose Luis Orella historialariak aipatzen du Gipuzkoako Artxibo Orokorrean gordetzen den dokumentu bat, 1528. urtekoa, zeina "Pedro de Pelegrin" Donostiako auzokidea agertzen dena.

TXIPRES


San Marko -honela deitzen dute bertako altzatar adintsuek- mendiaren hegalean eta Oreretako udal-dermiotik ez oso urrun etxe zahar, karratu eta eder bat dago. Txipresen edertasuna bere lau horma tinkoetan eta bere ojiba forma-ko leiho paregabeetan datza. Zaharrei beti entzun izan diet jentilek egina dela Txipres. Ez da horrela, baina zalantzarik gabe Gipuzkoako baserri zaharrenetako baten aurrean gaude. Eraikuntza ereduari dagokionez, XV. mendearen bukaeran eraikitako etxea da Txipres.

Baserri honetan San Jeronimoren irudi bat gordetzen zen. Irudi hau lehen Madalena deitzen zen-eta gaur San Marko deitzen da- mendiaren puntan zegoen ermita batetik jeitsia dela dirudi. San Jeronimo Madalenaren kidea da eta elkarrekin azaltzen dira aldareetan. Aspalditik eraiki nahi izan diote Txipresko baserritarrek San Jeronimori ermita bat, baina ez dute oraindik lortu, oso gutxi baitira. Altzatar euskaldunentzat ideia polita izan daiteke hau burutzea.



JOSU TELLABIDE

Txipres Altza - 1988




JOSU TELLABIDE

San Jeronimo. Txipres-Altza 2000-01



JOSU TELLABIDE

Txipres-Altza. Zillargiñeneko bidea



JOSU TELLABIDE

Txipres-Altza 1988. Lehiu gotikoa

MOLINAOKO SANTO DOMINGO DE GUZMAN

Altza izena XI. mendean aitatu zen lehenengo aldiz. San Martzial eliza, berriz, XIV. mendean sortu zen Donostiako «Artiga» lurretan. Garai haietan komunitate txikia zen oraindik Altza.

XV. mendean Errosarioko kofradia sortu zen Altzako San Martzial elizan., bere aldare propioa zuelarik. Predikarien Ordeneko ziren Domingo Elizalde eta Bartolome Muñoz fraileek ezarri zioten Maria Santisimaren Errosarioari fedea altzatarren artean. Dirudienez, hasieratik izugarritzko arrakasta izan zuen Altzan kofradia honek pentsa herriko 91 baserri-etxetatik ia 700 kofrade zituela 1703. urtean, Felix Elejalde eta Juan Erentxun historialariek esaten dutenez Urte hartan, bikario eta kofradiako kapellaua Altzako familia ezagun bateko semea zen: Migel Arzak.

Garai haiek joan ziren eta kofradia izkutatu zen. Egun Molinao etxearen aurreko fatxadan kajoitxo batean sartua agertzen zaigu Santo Domingo de Guzman, XIII. mendean bizi izan zena. Errosarioko fedearen zabaltzailea eta Predikari Ordenaren fundatzailea izan zena.



JOSU TELLABIDE

Santo Domingo de Guzman (Molinao-Altza) 1994



JOSU TELLABIDE

Molinao-Altza 1994

UBAKO AMA

Koruko Ama horretaz gain badugu donostiarrok beste amabirjin bat (askoz ere, tradizio zaharragokoa gainera) zeina Ubako amabirjina den. Uba antzin-antzinako oinetxe bat zen: Altzako herriari zegozkion lurretan zegoen. Ametzagaña mendixkaren magalean eta Urumea ibaie-tik ez urruti. Topo-nimo zahar hau «Hua» izenarekin agertzen da doku-mentu zaharretan; hortik dator gaurko «Uba» jatorki esaten den bezala, "salduba" edo "buruba" esaten diren bezelaxe. Uba oinetxea eta base-riak galdu ziren, baina ermitak hor

dirau oraindik, zutik eta oso maitatua da gainera herritarren artean gaur egun ere, Euskal Herriko beste amabirjin eta santu askok bezala Ubako Amak hurrei ongi lo egiten laguntzen baitie eta, zergatik ez? pertsona nagusiei ere berdin (magia horietan sinisten bada, noski!) Tradizioak dio bazko bigarren goan Ubako amabirginaren irudi txikiari musu ematen dioten hurrek lo ongi egingo dutela urte osoan. Horrexegatik deitzen zaio ere "Lo onetako ama". Jendea ingurutik eta Gipuzkoako alde guztietatik ere inguratzten da ospakizun honetara. Ubako Amabirjina Mesedeetako Amaren egunean ospatzen da (irailak 24). Martuteneko jaiekin batera.



XIMON

Ubako Amabirjinaren eliza 1994



ANGEL CALVO

Ubako Amabirjina

ARRIAGA

Leku honen benetako izena "Arriaga" da, eta ez "Arriya" idazteko behintzat. Arriaga Altzako etxe zahar eta garrantzitsu bat izan zen. XVI. mendean aipatzen da hasieran "Arraiaga" eta ondoren "Arriaga" deitzen zen oinetxea Herri berean dagoen "Berra" etxekoen ahaideak ziren Arriagatarrak.

Txirrita gure bertsolari handia ere etxe honetan bizi izan zen. "Gazteluene" baserrira pasa aurretik. Oinetxe honen lurretan "Arrizar" auzo berria eraiki zuten 1960-1970 hamarkadan etxea abandonatu egin zuten eta sute batek erre zuen. Bere hondakinetatik harmarria salbatu zen. Azken urte hauetan orube hau parke bihurtu da: "Arriaga parkea".

Pentsa etxe honek ze garrantzia duen Portugaleko ordezkartza kultural bat etorri zela, 1960. urte aldera 1911-1915 artean portugaldar Errepublikako aurreneko lehendakaria izan zen Doctor Manuel de Arriagaren abizenaren jatorria ezagutzera. Ez dakigu portugesek hauek ze inpresio hartuko zuten gure "Arriaga" zaharra zaturik ikusita!



JOSU TELLABIDE
Arriako Armarrria (Kasares Kultur Etxean) Altza1987



JOSU TELLABIDE

Arriaga/Arriya (Altza 1987)

AURRIN

San Marko mendiko iparraldean, bere magalean kokaturik bi baserri-etxe polit aurkitzen dira: Aurrin-goia eta Aurrin-behea (eta nahiago baduzue Abrin-goi eta Abrin-bia), Altza herri zaharreko ekialdean daude.



JOSU TELLABIDE

Aurrin goia (Orereta) 2000

Esan dezakegu gainera Aurrin-goia dugula Donostiako udal-dermioko ekialdean aurkitzen den etxea. Aurrin-goia ez da osorik donostiar-etxea, zeren Orereta edo Errenteria herriarekin erdibana zatitzen baita, ez gara harritu behar. Euskal Herrian hainbat etxe aurkitzen baita bi udal-herrien artean zatitua. Kasu guzti hauetan, ohitura eta legea denez. Oreretari dagokio Aurrin-goia, etxeoko sukaldea udal-dermio horren barnean aurkitzen baita, eta ikuilua berriz Donostian. Baina behiek ez dute animarik ezta bazkatzeko eskubiderik ere!

Beraz, Aurrin-goiako pertsonak Oreretarrak dira: behiak, aldiz, donostiarrak! Badu Abrin-goiak beste berezitasun bat: Kanpoko harmailetatik igo eta etxe-bizitzako sarrera zaintzen duen harrizko gurutze harrigarria, horman sartua dagoena Gurutze honek Kristo polit bat dauka. Gainera, badirudi bere sexua ageri duela, alajaina!

Abrin-bia edo Aurrin-azpi base-
rria Abrin-goiatik metro gutxitara kokatzen da eta Oreretari dagokio osorik udal-dermioko mugarik oso



JOSU TELLABIDE

Aurrin goia (Orereta) 2000

hurbil egon arren. Gure Txirrita handiak oso ongi ezagutzen zituen bi baserri hauek, izengoitizat hartu zuen izeneko etxea inguru horietan baitugu Txirrita Aurrinetatik oso hurbil dago, ekialdera. Bertan gure Joxe Manuel Lujanbio luzaro bizi izan zen. Beranduago Gazteluene baserrian bizi eta bertan hil zen.

Antonio Zabalak bero "Txirritaren bertsoak" liburuan azaltzen digu Joxe Manuel oraindik Txirrita baserrian bizi zelarik Erreterria bera hil zeneko susmoa zabaldu zela eta susmo hau Aurrin-Azpiko etxe-koandreak zabaldu omen zuela. Berri hori zela eta, haserretuta, honela idatzi zituen Txirritak bertso hauek:



NI HIL NAIZELA SORTU OMEN DU
AURRIÑ-AZPIKO ATSUA,
PENGA GALANTA ARTUKO ZUTEN
SINABE TA GURASUA
AI ZER NEGARRA NERE KOÑATA
ETA ILLOBA GAXUAK!
BIZI NAIZELA JAKIÑ DEZATEN
JARTZERA NUA BERTSUA.

PANPLONA'N DEDAN IZEBAXARRA
ZENBATXU MAITE DEDAN NIK
EZ DERIZKIYOT IÑORTXOK ERE
JUZGATUKO LUKIANIK;
KOITTARA AREK ABIXUTXO BAT
ARTU BIHAR DU NIGANDIK:
LUTO ORIEK ERANTZITZEKO,
BIZI NAIZELA ORAINDIK

IZEBA ZAR BAT BADA PANPLONA'N
GURE ETXIAN AZIYA,
ARTXEK EMANDA ARTUA NAIZ NI
BATAIUAREN GRAZIYA;
ARGANA ERE ALLEGATU DA
ILL NAIZELA NOTIZIYA,
KOITTARA URA AN OMEN DABILL
GUZIYA LUTOZ JANTZIAYA.

ZERUBAN DAUDEN SANTU TA SANTAK
DAUDE TRISTE ETA SERIYO,
GURE AUZUAN BIZI DA ATSO
SORGIN BAT DELA MERIYO;
BALDIN JAINKUA SALBAZIYORIK
ORRI EMATEN BADIYO,
UMILDADE TA ERREZATZIAK
ASKORIK EZTU BALIYO.

Dena dela, Antonio Zabalak dio Aurrin-Azpiko sendi hura desegin zela, eta haietatik inor ez dela bizi. Beste famili berri bat bizi da orain baserri horretan. Gaur egun, ez dago, beraz, inor ofenditzeko arriskurik.

MIRABARKERA

Altzako Mirabarkera ("Miamarka" betidanik jatorki altzatar eta pasaitarrentzat) baserri-etxe polit bat zen, gaur pareta zahar triste batzuk izan arren. Bere izenak garbi adierazten duenez, "barkerak" begiratzen dituen etxea da. "Barkak" txanelak, txalupak, batelak begiratzen zituen Miarmarkak. Batelak andere pasaitar prestuek arraunean erabiltzen zituzten. Nork daki Miamarkako andereak batelera ote ziren!

Victor Hugo idazle erromantiko handi hura gure batelerekin maiteminduta gelditu zen. Hark idatzi zuen "Pa-

saian, gizona itsas-ontzian andereak batelean. Gizona itsasoan anderea badian gelditzen da. Gizona arrantzara joaten da eta badiaren kanpo ateratzen da, anderea berriz, badian gelditzen da eta bere batelarekin bidaiariak pasatzen ditu alde batetik bestera." Horixe hain xuxen!: Miamarkaren azpian bere kaitxoak zuten gure andere xarmanta haiek eta kai-txiki honetatik San Pedro aldera edo Donibanera pasatzen zituzten bidaiariak, arraunean noski.

Urteen poderioz gure Pasaiko badia portu handi bat bihurtu zen eta gure Miamarkari errepidea egin zioten antzinako kai-txiki haren gainetik, urteetara Norteko trenbidea... ondoren "Topoa"... gero kai berri handiak egin zituzten eta gure etxe polit hura han gelditu zen bere inguru guztia suntsituta bere betiko irtenbidea mozturik. Kupidagatik edo, "Topo"aren etrepesak bertan geltoki txiki bat jarri zuen: alperrik! zeren gure Miamarka maitea bere ikusmira kenduta, penaz, betiko erori zen eta hortaz "Topo"-ak bere geltokia ere kendu zuen.



JOSU TELLABIDE

Miamarka/Mirabarkera- Altza 1990



ROXALI FERNANDEZ

Mirabarkera- Altza 1995

BERRA

Pasaian itsasoz sartzen bagara, Pasai San Pedro eskuinera eta Pasai Donibane ezkerrera ditugularik, gure aurrean agertzen da Berra oinetxe ederra mendeetan –eta gaur ere- Pasaiko portuko zentinelak izana. Berrako Gaina (erdaldunek "Alto Buena-vista" deitzen dute) beti leku estratejikoak izan da, beraz, familia boteretsu baten jabegoa izan zen lur hau. Berratarren familia Altzako nagusienetakoa zen Arzak, Kasares eta Arriagakoeekin batera, gainera beraien artean ahaidetuak zeuden.

Berrako Gainpean, ur-ertzean, Miamarko, Txoko, Antxo (hau da Pasai Antxori izena eman zion baserria) Berraxoko eta Eskalantegi gaur desagertuta dauden baserriak zeuden: Berraxokon, gainera, untxiola handi bat zegoen. Hauen guztien gainean Berra oinetxe ederra, inguru guztiak menperatuz.

Gaur Berra bi bizitzetan zatituta dago, nagusi-etxea (Villa San Antonio deitua) hegoaldera eta maizter-etxea iparraldea.

Biak hutsak daude eta etxea erabat zaharritua dago. Hala ere, garai bateko bere boterea eta antzinako aberastasunak igarri ditu bere aurrekaldeak. Etxe zahar honek ondoan bere jabegokoa zen baserri etxe txiki bat dauka oraindik zutik, eta lanean gainera, bere abere eta guztiz. Hau Berraxo da, inguru honetan "oasis" bat bezala gelditzen den baserri bakarra, eta denbora gutxirako zoritxarrez, "oasis" hau guztia laister "urbanizatua" izango baita. 1999. urtean eraiki ziren etxe berriak, Berraxokoak ziren baratza eta soroetan, dena dela, baserri-etxea zutik dago gaur egun.



JOSU TELLABIDE

Berra- Altza 1994



JOSU TELLABIDE

Berrako sarrera nagusia- Altza 1994



JOSU TELLABIDE

"Berraxo baserria"- Altza 1994

BINAGRENE

Ozpina edo "binagretik" omen dator izengoiti hau; ez harritu, halaxe da eta. Mirakruz Ategorrietatik Herrera aldera joaten, gain bat pasatzen dugu, horixe da Binagrene, edo Alto Vinagres gaztelaniaz.

Binagrene izena nondik datorkion ezaguna da bertakoak diren adineko pertsonentzat. Gain honetatik bide nagusia pasatzen zenez, baziren bi taberna ezagun: bata Arzakenea, eta bestea Txikuene, Bentaberri ere deitua zena.

Bi ostatuak oso ezagunak ziren donostiarren artean, baina bates ere, Arzakenea. Bertan "billarak"* egiten ziren igandero eta jendeak etxe aurrean, bidearen erdian noski, dantzatzen zituen fandangoak, arin-arinak eta "baltzian" ere ibiltzen omen ziren ahal zutenean. Autoak pasatzean, jendea dantzan ari zela, desbideratu egiten omen ziren, haiek garaiak!

Badakigu bezeroa oso gaiztoa dela tabernariek, eta Arzakeneako ardoa oso txarra omen zenez, hortik jarri zioten "Binagre" izengoiti bezala. "Mirakruz" izenaren esanahia dirudenez, Lezoko Santo Kristora Donostiatik joaten ziren erromesek jarria dela diote. Gain honetara igotzen zirenean bertatik ikusten baitzuten Lezoko San Juan Parrokiaren teilatuko gurutzea.

Gaur, ospe handiko jatetxe bihurtua, zutik mantentzen da Arzakenea zen ostatu zahar hura. Errepidea zabaltzeko Txikuene bota egin zuten eta bertako tabernariek gaur zutik dagoen izen bereko beste jatetxe bat jarri zuten Amara auzoan Ospitale inguruan. Gaur egun, zoritxarrez, Binagrene eta Lezo artean dagoen etxe "oihana" dela medio Lezoko gurutzea ez da ikusten.

"Billera": Donostiako auzoetako zenbait tabernarik musikoak kontratatzen zituzten igande aratsaldetan dantzaldiak egiteko beraien tabernen atarrietan. Gazteria leku hauetara biltzen zen dantza egitera.



XIMON

Arzakenea "Binagrene"

LONDRES

Gaur hain izen ezaguna bihurtu den Altzako Garbera alderdian dago Londres baserria, Garbera-bea eta Paris etxeetatik ipar-mendebaldera muino zabal batean kokatua. Londresetik mendebaldera jarraituz eta gaur egun desagertua dagoen Bustintxuloko errekaen beste aldetik hiru baserri eder zeuden: Argel-aundi; Argel-txiki eta Argel-etxeberri. Aipatutako errekaen buruan, hego-mendebaldera berriz, Arruax edo Rodas baserria zegoen. Egia auzoan sartuta. Tuniz, Tuniz-berri eta Xibili edo Sibilía (Sevilla?) handia eta txikia zeuden.

Inguru guzti hau 1968. urte aldera suntsitua izan zen. 24 baserri desagertu ziren eta haien artean aipaturiko gehienak. Gaur Londres zaharra ere desagertzeko zorian aurkitzen da hipermerkatu erraldoi bat eraikitzeaz baitago bere lurretan. Ziur aski Londres toponimoa galduko dugu betirako lehen aipatuak eta Sebastopol, Toledo, Algarbe, Lobaina, Miranda, Ebro, Alejandria, Oporto, Esparta edo Madriltxo galdu genituen bezala. Eskerrak oraindik hor direla zutik: Habana, Txipres eta Ametzagañaren hegian dagoen Plazentzi edo Placencia zaharra gure baserri-izendegi aberatsaren azken lekukoak bezala.

Garbera hipermerkatuaren gasolindegia ondoan, gaur ere hor dago Londres, zutik, denborari begira, abandonatua, sasi artean.



JOSU TELLABIDE

Londres- Altza 1987

MENDIOLA

Uliamendiko ekialdean kokatzen da Mendiola baserria, Bidebietako "tiro nazionala" deituriko tiro zelaiaren goikaldean. Hain zuzen ere, tiro zelai hone-tatik babesteko etxe aurrean murrutzar handi bat dago. Etxea egitura onekoa da, sarre-ran harlanduz egindako bi arko itsutu agertzen dituelarik.

Duela urte asko (35 agian) udara aldean lagunak koadri-lan abiatzen ginen Gros auzo-tik, Sagues eta Manteon zehar, Ulia mendian gora. Arbolako taberna, Loitxikiko erreka, Kutrallako iturria eta Barraka baserrian zehar Mendiolako zabalera eta izen bereko base-ri eta sagardotegira heltzen ginen. Gu bezala beste donos-tiar gazte asko joaten zen oinez aipatu bidetik inguru haietara. Sagardo botila eros-ten genuen baserrian eta hura edanez etxean prestatutako ogitartekoak jaten genituen hamaiketako gisa.



JOSU TELLABIDE

Mendiola-Ulia (Donostia 1991)

Esan genezake Mendiola baserria Uliamendiko baserririk ezagunena izan dela beti. Aipatu mendian egon arren betidanik Alzako jurisdikzioari zegokion eta herri hauetako San Martzial parrokian bataiatu izan dira beti etxe honetako seme-alabak. Joan den mende erdiko dokumentoetan beste izen bat ere erabiltzen da etxe hau aipatzeko: "Guruceta". Izan ere, Gurutzeta deitzen den Uliamendiko alderdian kokatzen da Mendiola. Dena dela, 1862. urtean Donostian egin zen baserri-etxe Erregistroak bi izenak erabiltzen ditu: "Guruceta o Mendiola-goya". Badirudi Mendiola izena Ategorrieta inguruan aurkitzen ziren Mendiola Aundi eta Mendiola Txiki etxe-nagusi eta baserrietatik datorkiola, Mendiola abizenakoak omen ziren etxe haietako nagusiak ere. Aspaldi galdu genituen etxe zahar haiek; dirudienez Ategorrietan bertan aurkitzen den Tarlac etxe ederrak ordezkatu zituen.

ALTZAKO BARBOTEGI

Altzako plazan San Martzial elizaren iparraldeko hormaren ondoan etxe txiki zahar bat dago. Etxea oso ongi zainduta dago: txuriz margotua, hareharritzko harlanduak ertzetan eta lau ureko teilatua. Esan dezakegu zalantzarik gabe, gaur Altzako plazan dagoen etxerik txikiena dela baina baita politena ere. Etxe hau ez da inoiz izan baserri edo kale-etxe arrunt bat, beti Altzako herriko medikuaren etxea baizik. Gaur oraindik altzatar batzuek Barbotegi izenaz gain Medikue-etxea edo "Medikuen etxia" deitzen dute baita ere. 1862. urtean Donostiako udalak (garai haietan Donostiari zegokion herria zen Altza, urte batzuk beranduago hiritik independizatu arte) egin zuen hiriko eta Udal barrutiko etxe erregistroan, "Casa del Cirujano" izenarekin aipatzen da. Beraz, Barbotegi "barbera" edo "barberuan" etxea da. Izen hori baita euskaldunek ematen dioguna sendagile, praktikante edo antzeko lana egiten duen pertsonari. Ez pentsa izen berezia denik etxe bat izendatzeko. Besteak beste badira Barbotegi baserria Ulian (Ategorrietan) eta Barberoetxe Igeldon (Arrokaldean).



JOSU TELLABIDE

Barbotegi- Altza 1991

UBEGI

Altzako herriaren parte izan zen Ubei edo Ubegi baserri ederra. Ametzagaña mendixkaren hegoaldean egian kokatzen da, eguteran, nekazaritzarako ezin hobeak diren lurrez inguratuta. Horrelako paraje erosoak gure lurreko historian antzinetik, beti, eskatuak izan dira eta arrazoi horrexegatik etxe zahar eta onak leku horietan aurkitzen dira. Hauetakoa bat da Ubegi, XVI. mendeko etxe aparta, karratua eta lau uretako teilatu batez estalia. Jauregi baten itxura eta edertasuna ditu. Gaur bi bizitzetan zatitua dagoen baserri honen zurezko egiturak mirariz gaurdaino iraun du; hainbat gerra, ekaitz eta sutetik salbatu egin da. Bere barnealdeak gotiko garaiko tolaré baten hainbat aztarna mantentzen ditu oraindik. Tolare haiek etxe osoaren zurezko egiturarekin osatzen ziren: bi habe zutikakoen artean hamabi metroko luzerako beste enbor edo haga handi bat lotzen zen. Haga hau zazpi edo zortzi metroko luzera zuen ardatz batekin mugitzen zen, honela hagak mandioan, tolaré askan, pilatzen zen sagarra zapaltzen zuelarik.



JOSU TELLABIDE

Ubegi- Altza 2000



JOSU TELLABIDE XVI. mendeko egitura behe solairua



JOSU TELLABIDE

XVI. mendeko egiturako loturen xehetasunak.



JOSU TELLABIDE

XVI. mendeko egitura paragabeak

GARTZIATEGI

Urumea ibarrean, Donostiako udal dermi-noaren barnean, betidanik ospe handiko sagardotegiak daude. Bata Barkaiztegi da, Amara Behea distrito zaharrear dagoena eta bestea, Gartziategi Altza herriko Sarrueta auzoan. Lehena, beste artikulu baterako utzita, honetan Gartziategiz hitz egingo dugu. Agian kupelategi hau gaur egun sagardotegi bezela jarraitzen duen Gipuzkoako eta Euskal Herriko zaharrena izango dugu, XVI mendeko etxe batean kokatuta baitago.

Urumea ibaian bazuen bere portua Gartziategik. Portu hau, etxea bezala, Astigarraga herriko mugan dagoenez, herri honetako kontsideratua izan da eta honela, Gartziategiko sendiak Astigarragako Santiago parrokiako eliztarrak dira eta herri honetan izan dute beti beraien hilobia. Herri bezala berriz, beti altzatarrak izan dira etxe honetako biztanleak eta ez astigarragatarrak, jende askoren ustea azken hau izan arren.

Orain dela urte gutxi arte Gartziategi sagardotegi bakarra zen; gaur bitan zatituta dago kupelategi hau. Dena dela, ez du galdu bere edertasuna: bai paregabekoa zela kupelez inguratutako eta lurrezkoa soilik zen zoru hura! Mutikoa nintzenean, sagardo garaian, tranbean Gartziategin ateetatik pasatzen ginen, ostegunetan Hernaniko ferira joateko. Harriturik gelditzen nintzen. Hura zen jendetza etxe haren atarian ikusten zena!



JOSU TELLABIDE

Gartziategi - Altza Sarrueta 1993



JOSU TELLABIDE

Gartziategi - Altza Sarrueta 1993

INTXAURRONDO HAUNDI

Donostian agian Altza izango dugu oinetxe gehien eta boteretsuenetakoak zituen herria: Arzak, Arriaga, Kasares, Kasanao, Arnaobidao edo Ernabiro, Txipres, Merkader, Larrerdi, Berra, Garro, Boneo edo Moneda, Larratxao edo Larratxo, Garbera, Parada, Algarbe, Intxaurreondo... eta hainbat gehiago. Gehienak zoritxarrez desagertu dira baina beste asko hor dago zutik gaur ere eta horien artean zer esanik ez Intxaurreondo Haundi (eta ez Intxaurreondo Zahar hormetan idatzitako kartelak dion bezala) izango dugula ederrenetakoak. Eraikuntza eder hau XVI.- XVII. mende aldaketan egin da. Beraz, 400 urte bete ditu harearizko harlanduz eta zura onez egindako etxe honek. Bere estilo-arengatik oso ongi nabarmentzen da inguru guztian eta are gehiago, Donostiako dermioan, ez baitu parerik oinetxe honek. Pentsatzekoa da honelako etxe garrantzitsu batek inguruari ere bere izena ezarriko ziola eta honela gertatu zen. Bere ondoan aspaldi eraiki ziren etxebizitzak Intxaurreondo izena hartu zuten, eta berdin gertatu zen han diren Larrotxene, Aranzuriene eta inguruko eta beste baserri eta etxeekin ere. Orain 60 urte auzune polit hau sortua zen dagoeneko. Auzo honen luzapena bazela eta Norteko (orain Renfe) trenbidearen beste aldean etxe berriak eriki ziren beste hainbat auzune sortuz. Hauek ere, Intxaurreondo izenarekin ezagutzen hasi ziren. Honela, toponimoa zabaltzen joan zen. Azken urte hauetan etxeen ugartzea izugarria izan da, auzo berri gehiago sortu direlarik, denak Intxaurreondo izenarekin. Orain 80 urte etxe bakarra zen Intxaurreondo gaur hiriak duen auzorik handienetakoak bihurtu da.



JOSU TELLABIDE

Intxaurreondo Haundi - Altza 2000



JOSU TELLABIDE

Intxaurreondo Haundi - Altza 2000



JOSU TELLABIDE

Intxaurreondo Haundi - Altza 2000

PARADA



JOSU TELLABIDE

Parada baserria- Altza 1995

Beti Altza herrikoa izan den oinetxe ospetsua dugu Parada. Mirakruz gainaren (gure zaharrek Binagrene deitzen diote gain honi gaur ere) erdi-erdian, Donostiatik Pasaiara zihoan bide zaharraren ondoan dago. Ezin hobea zen etxe honen kokapena: eguterari begira Uliamendiko bizkar leun batean. Garai haiek bukatu ziren eta lur emankor haiek etxez bete ziren. Etxe artean, baina hor dugu gaur ere zutik Parada zaharra, historiaren lekuko. Dakigunez, Donostia hiria gaskoinez biztanletua izan zen XII. mendean; horien artean izango ziren paradatarrak ziur aski. Parada abizena XIII. mendetik jadanik aipatua dugu Donostian. Besteak beste, Serapio Mujika historialariak idatzi zuen Gipuzkoako gaskoinez eta berak dio, Arturo Kanpion idazle handiari hartutako zita batean, honek gaztelaniaz idatzitako esaldi hau: "Gonzalo de la Parada, franco de San Sebastián, en el año 1261" . P. Barrio Panguak argitaratutako 1566. urteko Donostiako erroldan, berriz, gaur hirian desagertua den Amassorrain kalean «Tomás de la Parada de la casa de la Parada jurisdicción de esta villa» erregistratzen da. Mirakruz-gaineko oinetxe ospetsuaren ondorengoak dirudite Donostiako udal-barrutian dauden Parada Altza-Sarruetako eta Parada Lugaritzeko baserriek.

LAZUNENE

Lazunene Zar baserria dokumentuetan «Lasunene» idatzita agertzen da beti -Urumea ibaiaren eskuineko ertzean aurkitzen da, ibaiaren ertzean edo eskuineko «kostan», bertako zaharren hizkuntzan. Beraz, Lazunene, beti Altzakoa izan den Sarrueta baserri-auzo zaharrean dago. Toponimo honen esanahia oso esanguratsua da: Lazuna «korkoia» baita. Ibaietan eta itsasoan dabilen arrain mota ezaguna. Gure herrian izen hau ia galdua dugu. Dena dela, bai Amaran eta baita Loiolan ere Sarruetan entzun izan diet arrantzan ibiltzen ziren zaharrei Urumea ibaian arrain asko zela eta mota askotakoak harrapatzen zirela: platuxak, izokinak, angulak, aingirak, lazunak... eta abar. Lazunen auzoko diren Katalintxo, Bola-gillene, Torrua, Tolarezar. Balerdi edo Aingelu auzokoak diren baserriek bezala, bazuen Lazunene zaharrak bere portua Urumea ibaian. Dirudienez lazunen arrantzan bertako etxetiarrak oso iaioak izan arren bazuten beste iharduera nagusi bat: karea egiten zuten etxetik hegoaldera eta Aingelu baserritik hurbil aurkitzen diren karobi eta arragoetan. Lazuneneko karobiak deitzen dira hauek eta agian Donostiako udalerrian gaur egun osorik aurkitzen diren bakarrak izango ditugu. Karea, batez ere, soroen eta belardien ongarri bezala erabiltzen zen.



JOSU TELLABIDE

Lazunene baserria- Sarrueta Altza 1999



JOSU TELLABIDE

Lazuneneko karobia- Sarrueta Altza 1986

ESPARTXO

Espartxo edo Espartxuene, deitzen dugu beti Altzakoa izan den etxe hau. Joan den mendeko etxe zerrendetan «Esparcho» eta «Esparta» izenarekin azaltzen da. Nondik izen berezi hau? Nondik datoz gure Donostia eta bere ingurura Rodas, Lovaina, Paris, Tunis, Argel, Londres, Babilonia, Habana, Melilla... bezelako toponimo exotikoak?

Espartxo, Urumea ibaiaren eskuineko «kostan» dago eta beti portua izan da, oso garrantzitsua eta garai batean baita ezaguna ere, Ubako jabego ospetsuaren portu eta ibia zenean. Entzuna dut Ubako amabirjina bisitatzera joaten zirela hiriko harresien barneko erromesak Donostiako Santa Katalina portu txikitik (gaurko Etxaide kalea zegoen portu zahar hori), txalupa, txanela eta aletan sartuta. Espartxoko portuan lehorrerutzen ziren gero oinez Ubako amabirjinari bisita egiteko. Bada-kizue, hain donostiarra dugun Amabirjina horrek ongi lo egiten laguntzen du. Hauxe da gure zaharren sinismena eta gaur egun ere bada Ubako Amabirjina bisitatzeko duenik eta sinesmen polit horiek gordetzen duen hainbat pertsona.



JOSU TELLABIDE

Espartxo baserria - Altza 1996

Antzinako etxe eta baserri zaharra dugu Espartxo, baina egun oso aldatuta dago, bere sotoetan zurindegi edo haroztegia ditu, mandio eta ganbaran berriz, etxe bizitza. Dena dela garai bateko lekuko isil, hor dauka etxe honek Neptuno, uretako jainkoa den irudi hori, beti Urumea ibaia zaintzen.



JOSU TELLABIDE

Espartxo (Uba) - Altza 1987

KASARES OINETXEA

Kasares Altza herriko barroko garaiko oinetxe ederra bat da -agian ederrena-. Ez oso aspaldiko garaitan oraindik soro eta belardi emankorrez inguratua zegoen, gaur berriz etxe eder honen inguruko parajea auzo-etxez beteta dago. Kasares -Arzakekin batera izango da nire ustez Altzako oinetxe eta abizen garrantzitsuena herri honen historiaren hasieratik azaltzen baita. XIV. mendean «Estibaus» izeneko zelaian (zelai hori gaur Elizalde edo Isturiz Aundi deituriko etxea dagoen orubean zegoela dirudi) biltzen ziren herritarak. Ordurako han izango ziren kasarestarrak. Beranduago 1620. urtean Altzako oinetxe gehienetako ordezkariak biltzen dira Batzarrean zimitorian. Han zegoen Juan de Casares jauna Kasares oinetxeko nagusia, Arzak, Arriaga, Zapiain eta beste altzatar askorekin batera.



JOSU TELLABIDE

Kasares -Altza 1996



JOSU TELLABIDE

Kasares oinetxeko harmarria

Rikardo Izagirre donostiar historiagile eta toponimista handiaren datuen arabera, 1832. urtean Vicente Casares jauna zen etxe boteretsu honen jabea. Garai hauetan auzoan dagoen Tomasene XVI. mendeko etxe paregabea berriz Isabel de Arzac anderearen jabegoa zen. Kasarestarrak eta Arzaktarrak familia boteretsuak ziren eta beraiek, jakina, zituzten herrian kargurik garrantzitsuenak: alkate, erretore, errejidore... eta abar. Altzak, 1910. urtean "hiri" titulua eskuratu zuen. Garai horretan, Segundo de Casares jauna zen herriko alkatea.

Auzune berriak eraiki zituztenean, Kasares utzia gelditu zen egoera penagarrian. Bazirudien betiko galdua izango zela baina hondakinetatik berriz ere altxaturik hor agertzen da harro Kultur Etxe dinamiko batean bihurtua.